

Arñok bi saski bete zituen berehala eta lasterka joan zen jostatzera.

Amatxik oihu egin zion :

15 – Arño! erreximentaren egiten lagun nazazu!

Amatxik eta Arñok urean garbitu zituzten martxukak. Gero Amatxik oihal batean tinkatu zituen eta pisatu.

– Orain lau kilo azukre erosiko dituzu etxetik jalgitzean aurkituko duzun saltokian.

20 Arñok joan-jina bizikletaz egin zuen.

Amatxik martxukak eta azukrea nahasi zituen. Ondotik, **bertza** suaren gainean ezarri zuten. Zurezko zali batekin Arñok emeki-emeki erreximenta nahasten zuen. Usain goxoa bazela sukaldean!

25 – Erreximenta egina dea, Amatxi?

– Arño, zoaz jostatzera, nahasten segituko dut eta egina izanen delarik deituko zaitut.

Arñok pilota hartu zuen eta atera zen. Baina ez zen etxetik urrundu...

30 Handik laster Amatxik oihu egin zion :

– Arño! Erreximenta egina da!

Amatxi berinontzien betetzen hasi zen. Arñok "martxuka" idatzi zuen papertxoetan eta ontzietan kolatu.

Bertza hustua zutela, Amatxik eskaini zion Arñori :

35 – Oizu, Arño! Milikatzeko gutizia duzu?

Arñok gogotik hartu zuen bertza. Erhietan bildu erreximenta hondarra **murtxatu** zuen... Berriz ere beltz-beltza jarri zen Arñoren aurpegia... martxuka erreximentaz emokatua. Amatxiren irriak!

bertza: metalezko tupina irekia.

murtxatu: xurgatu.

Francas erakundearen *Jeunes années* aldizkaritik egokitua.

